

ZURE ZAIN

Zure zain naukazu gau eta egun, ene maitea!

Lili margotsurik ematen ez duen lur gorria

Egungentiko eguzki-izpirik gabeko udaberria

Erabat agorturik dagoen alferrikako iturria

Orbaindu ezinezkoa den zauri mingarria

bezainbeste negargarria zait zure hutsunea!

Zure zain naukazu, ene bihotzaren jabea!

Zure urrezko adatsa, eguzkia beraren oparia

Zure ahots ezta, zure irriño alaigarria

Harribitxien distirazko begirada jostalaria...

Azalduko dizut nire ametsen zinezko guraria:

Zure marrubizko ezpainak nireekin nahastea!

Zure zain naukazu, ene izatearen zutabea!

Atzean ahazturik utzi zenituen nola jaioterria

hala bizitza lasaia, eroso adina eredugarria

Atzerago aldiz, lagunak, sendia nahiz baserria

bion izerdiaz eraikitako kabi maitagarria!

Egun daramazun biziera nekez liteke hobea!

Zure zain naukazu haatik, zabalik duzu atea!
Maitasuna zen gure elkarbizitzaren oinarria
Begirunea berriz, barren-barrengo giltzarria
Egiazki ginen alegiazko bikote txit txundigarria
Uztarri berean genuen biok lepoa ongi ezarria...
Noizbait itzuliko zarela behar dut sinestea!

Zure zain naukazu beraz, itxaropenez betea!
Madarikatua izan bedi Igor, sugedorri gogaikarria
Damu dut berau aurkeztu nizun egun tamalgarria
Oroitze soilak sortarazten dit bihotzean min larria!
Ele ederrez limurtzen aditua zen nonbait zerria!
Sagar ustela egokitu zitzaidan ustezko adiskidea!

Zu izan zinen bere zerrendan hurrengo lorea!
Mihiri eragiten zuen artea, hartua zeukan neurria
Erakartzearren, mintzo goxoaz jan zizun belarria
Alabaina, arestian heldu izan zait berataz berria:
beste norbaitekin behar duela izan hasiberria...
Ez ezazu isuri negar-malkorik iruzurtti horri beha!

Zure zain jarraitzen dut, ez luzatu bion oinazea!
Itzul zaitez nigana, ez zaitez izan setatia
Iraganari jar diezaiogun sendoki mugarría
oraina eta geroari ausarki eman ez ongi etorria
Izan gaituzen berriro lehengo bikote xarmangarria!
Zatoz nigana, arintzera nire zama, nire gurutzia!

Zure zain naukazu, ez iraunarazi bion atsekabea!
Uxatu ez baitasunaren mamutzar beldurgarria
Haizatu bai arrangurak, bai zirrara abailgarria
Ez baitut nire baitan gordetzen mendeku-egarria
Nire besoetan sentitu nahi zaitut, inguratuz gerria
Nire irrika bakarra baita zu laztantzia, zu ferekatzea!

Egotzi behingoz zure albotik zantzu beltzeko belea!
Zain naukazu, ariman erein ostean barkamenaren hazia
Zain naukazu hemen, orain, zatoz arin, ez galdu astia
Ez tenkatu lotzen gaituen lokarria, ez dadila eten haria
Zatoz, zurekiko nire xera xede gardenez denez jantzia
eta izan bedi gure amodioa egiaz amaierarik gabea!

MAITABERA